

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 4503

*AGINDUA, 2022ko urriaren 5ekoa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2022rako deialdia; dekretu horren bidez, enpresa- eta sindikatu-erakundeei dirulaguntzak ematea arautzen da, beren jarduera-esparruei dagozkien gaietan erakunde horiekin lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.*

Azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuak (2021eko azaroaren 18ko 230. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua) enpresa- eta sindikatu-erakundeei dirulaguntzak ematea arautzen du, beren jarduera-esparruei dagozkien gaietan erakunde horiekin lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten. Dekretu horren xedea da laguntza-neurriak berrestea eta finkatzea, sindikatu-erakundeen berezko helburuen barruan prestakuntza-ekin-tzak egiteko. Laguntza-neurri horiek 1996an hasi zituen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak; urriaren 29ko 244/1996 Dekretuan arautu ziren hasiera batean, eta, ondoren, uztailaren 29ko 191/2003 Dekretuan. Egungo dekretuak finantzaketa publikoko sistema bat ezartzen du, enpresarien elkarleen eta erakunde sindikalen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integrazteraz eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta, baliabide egoki bihurtu daitezkeen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziolaborala hobetzeko ekarpena egin dezaten.

Dirulaguntzen arau horrek indarraldi mugagabea badu ere, ezartzen du lan-arloan eskumena duen saileko titularraren agindu bidez urtero egingo dela dekretu horretan aurreikusitako laguntzen deialdia; deialdian adierazi beharko dira eskabideak aurkezteko epea eta haiek finantzatzeko erabiliko den gehieneko zenbateko osoa, erakunde onuradunen bi kategorien artean banatuta.

Era berean, adierazten du ekitaldi bakoitzeko urteko deialdiaren aginduak zehaztuko dituela baliabide ekonomiko erabilgarrien banaketa ehunekotan sindikatu- eta enpresa-erakundeen artean, balorazio-irizpide bakoitzaren baremoak eta gehieneko modulu ekonomikoak. Gainera, laguntza horiek izapidetzeko bitarteko elektronikoak erabiltzeko zehaztapenak jasoko dira. Zehaztapen horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak –uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak aldatua– 10.1.y) artikuluan Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzari esleitzen dio gizarte-eragileen giza baliabideen kualifikazioa sustatzeko eginkizuna, horiek gizartearen garapen ekonomikoari eta ongizateari laguntzeko prestakuntza-planen bitartez.

Azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 6. artikulua xedatzen du laguntza-programa honetara bideratutako urteko aurrekontua Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan ekitaldi bakoitzerako aurreikusitakoa izango dela.

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak 49.5 artikuluan ezartzen duenez, ekitaldi ekonomiko bakoitzean Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan indarrean jartzen direnean, eguneratu, berrikusi, edo, hala badagokio, ezarri egingo dira programen dirulaguntzak emateko arauak, eta kasuan kasuko deialdia egingo da bere garaian izaera mugagabez arautu ziren dirulaguntzetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 11/2021 Legean, 191/2003 Dekretua (Enpresa-elkarteen eta sindikatuen prestakuntza-planak) izeneko 19/3160 kontu-saila kontsignatu da honako programa honetan: 3112 Lana, 11 zerbitzua, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza, 452 azpikontzeptua, Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuei transferentziak eta dirulaguntzak. Dirulaguntzaren zenbatekoa, guztira: 766.152 euro.

Xedapen honen bidez deitutako dirulaguntza-lerroa Lan eta Enplegu Sailaren 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Jaurilaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2021eko abenduaren 14ko Aginduan dago xedatuta, Dirulaguntzen Lege Orokorrak (azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra) 8.1 artikuluan ezartzen duen moduan, eta manu horretan aipatutako edukiarekin.

Hori guztia dela-eta, eta azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 6.1 artikuluan jasotako gaikuntza baliatuz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2022rako deialdia egitea. Dekretu horren bidez arautzen dira enpresa- eta sindikatu-erakundeentzako dirulaguntzak, beren jarduera-esparruei dagozkien gaietan erakunde horiekin lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatzeko.

Bigarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, eta agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da.

Hirugarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honen xede den finantzaketara bideratutako baliabide ekonomikoak, 2022rako, 766.152 euro dira guztira; horietatik, 536.306 euro 2022rako aurrekontu arruntaren kargura izango dira, eta 229.846 euro 2023. urterako konpromiso-aurrekontuaren kargura.

Gehieneko zenbateko hori erakunde onuradunen bi kategorien artean banatuko da, honako banaketa-formula honen arabera:

- a) Enpresa-erakundeei gehieneko kopuru osoaren % 40 emango zaie, hau da, 306.460,80 euro.
- b) Erakunde sindikalei gainerako % 60a emango zaie, hau da, 459.691,20 euro.

Laugarrena.– Prestakuntza-ekintzak hasteko eta amaitzeko epea.

Azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 4.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretu honen arabera diruz lagunduko diren prestakuntza-planetan aurreikusitako prestakuntza-ekintza guztiak 2022. urtean hasi beharko dira, eta 2023ko martxoaren 30a baino lehen amaituta egon beharko dute.

Bosgarrena.– Prestakuntza-planak baloratzeko irizpideen baremoak.

Azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 11. artikuluen arabera, balorazio-irizpideen baremoak honako hauek izango dira:

1.– Dekretuaren helburuetara egokitzea: prestakuntza-ekintza guztiak, diruz lagundu daitekeen taldea edozein dela ere, azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritako helburuetara egokitzen ote diren baloratuko da. Horretarako, dekretura egokitutako ekintza gehien aurkezten duen erakundeari gehienezko puntuazioa emango zaio, 50 puntu. Gainerako erakundeei dekretura egokitutako ekintza-kopuruaren arabera puntuazio proportzionala emango zaie, gehieneko puntuazioari dagokionez.

2.– Prestakuntza garatzeko gaitasuna (25 puntu, gehienez): balorazio-irizpide horretarako baremoak, honako hauek izango dira:

a) I. talderako, erakunde eskatzaileak prestakuntza garatzeko duen gaitasuna honako irizpide eta baremo hauen arabera baloratuko da:

– Prestakuntza-ekintzen lurralde-irismena, gehienez ere 5 puntu, prestakuntza-ekintzak hiru lurralde historikoetan antolatzen diren, horietako bitan edo batean bakarrik.

- Hiru lurralde historiko: 5 puntu.
- Bi lurralde historiko: 3 puntu.
- Lurralde historiko bat: 1 puntu.

– Prestakuntza-planean sartutako I. taldeko jardueren hartzaile diren pertsonen kopurua, gehienez 10 puntu, tarte hauen arabera:

- 801 pertsona baino gehiago: 10 puntu.
- 800-501 pertsona: 5 puntu.
- 500-301 artean: 3 puntu.
- 300-101 artean: 2 puntu.
- 100 baino gutxiago: 1 puntu.

– Prestakuntza-ekintza bakoitzeko ordu-kopurua, gehienez 10 puntu.

- Prestakuntza-ekintza guztien % 51k 6 ordu baino gehiago baditu: 10 puntu.
- Prestakuntza-ekintza guztien % 51k 6 ordu baino gehiago ez baditu: 5 puntu.

b) II. talderako, erakunde eskatzaileak prestakuntza garatzeko duen gaitasuna honako irizpide eta baremo hauen arabera baloratuko da:

– Prestakuntza-ekintzen lurralde-irismena, gehienez ere 1,5 puntu, prestakuntza-ekintzak hiru lurralde historikoetan antolatzen diren, horietako bitan edo batean bakarrik.

- Hiru lurralde historiko: 1,5 puntu.
- Bi lurralde historiko: 1 puntu.
- Lurralde historiko bat: 0,5 puntu.

– Prestakuntza-planean sartutako II. taldeko jardueren hartzaile diren pertsonen kopurua, gehienez 10 puntu, tarte hauen arabera:

- 1.001 pertsona baino gehiago: 10 puntu.

- 1000-901 pertsona: 9 puntu.
  - 900-801 artean: 8 puntu.
  - 800-701 artean: 7 puntu.
  - 700-601 artean: 6 puntu.
  - 600-501 artean: 5 puntu.
  - 500-401 artean: 4 puntu.
  - 400-301 artean: 3 puntu.
  - 300-201 artean: 2 puntu.
  - 200 baino gutxiago: 1 puntu.
- Prestakuntza-ekintza bakoitzeko ordu-kopurua, gehienez 10 puntu.
- Prestakuntza-ekintza guztien % 50ek 15 ordu baino gehiago baditu: 10 puntu.
  - Prestakuntza-ekintza guztien % 25ek 15 ordu baino gehiago baditu: 5 puntu.
- Erabilitako plataforma informatikoen eguneratze-maila. Aurreko ekitalditik hona eguneraketaren bat egin bada, 3,5 puntu.
- 3.– Esperientzia (25 puntu, gehienez): balorazio-irizpide horretarako baremoak honako hauek izango dira:
- a) I., II. eta IV. taldeetarako, erakundeek deialdiaren esparruan prestakuntza-ekintzak emateko orduan duten esperientzia egiaztatua honako irizpide eta baremo hauen arabera baloratuko da:
- Aurreko ekitaldian onartutako prestakuntza-planaren betearazpen-maila: 20 puntu gehienez. Tarte hauen arabera banatuko dira:
- Betearazpen-maila % 100ekoa bada: 20 puntu.
  - % 90 eta % 100 artekoa bada: 15 puntu.
  - % 75 eta % 90 artekoa bada: 10 puntu.
  - % 50 eta % 75 artekoa bada: 5 puntu.
  - % 50etik beherakoa bada: 0 puntu.
- Aurreko ekitaldian onartutako prestakuntza-planeko parte-hartzaileen amaitze-tasak, 5 puntu gehienez.
- Tasa % 75 eta % 100 artekoa bada: 5 puntu.
  - Tasa % 50 eta % 75 artekoa bada: 2,5 puntu.
  - % 50etik beherakoa bada: 0 puntu.
- Erakundea lehen aldiz aurkezten bada, betearazpen-maila eta amaitze-tasa % 50ekoak direla ulertuko da.

b) III. talderako, erakundeen esperientzia egiaztatua aurreko ekitaldiko planaren bete-arazpen-mailaren arabera soilik baloratuko da; 25 puntu gehienez.

- Bete-arazpen-maila % 100ekoa bada: 25 puntu.
- % 90 eta % 100 artekoa bada: 19 puntu.
- % 75 eta % 90 artekoa bada: 13 puntu.
- % 50 eta % 75 artekoa bada: 6 puntu.
- % 50etik beherakoa bada: 0 puntu.

Seigarrena.– Gehieneko modulu ekonomikoak.

Prestakuntza finantzatzeko dirulaguntzak zehazteko eta justifikatzeko aplikatu daitezkeen gehieneko modulu ekonomikoak honako hauek izango dira, irakasteko modalitatearen eta diruz lagun daitezkeen taldearen arabera:

I. taldea	9 euro parte-hartzaile eta prestakuntza-ordu bakoitzeko
II. taldea	7,5 euro parte-hartzaile eta prestakuntza-ordu bakoitzeko.
IV. taldea	5 euro parte-hartzaile eta prestakuntza-ordu bakoitzeko.

I. taldean sartzen diren ekitaldi masiboen kasuan, baldin eta ekitaldi horiek lanaldi osokoak badira eta gehienez 2 jardunaldi irauten badute, gehienez ere 2.400 euroko modulua ezartzen da eguneko.

Jardunaldi osotzat hartuko da jardunaldi berean gutxienez 8 orduko iraupena duena, eta gehieneko modulua proportzionalki murriztuko da benetako iraupeneko ordu-kopurura.

III. taldeko ekintzei dagokienez, guztizko gastuaren % 35 lagunduko da diruz.

Zazpigarrena.– Laguntzen izapidetze telematikoa.

1.– Laguntzak emateko deialdi honetako eskabide, errekerimendu, jakinarazpen, zuzenketa, justifikazio eta gainerako kudeaketak bitarteko elektronikoz egingo dira.

2.– Eskabidea eskuratu eta betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora jo beharko da; zehazki, helbide honetara:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1065405>

Kanal elektronikoaren bitartez izapidetzeari buruzko argibideak, baita eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak ere, aipatutako egoitza elektronikoan eskuratu daitezke.

3.– Agindu honetako espedienterako irispidea, eta errekerimendu, jakinarazpen, zuzenketa, justifikazio eta eskabidearen osteko gainerako kudeaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren «Nire Karpeta» atalaren bitartez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

4.– Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>.

5.– Eskabideak elektronikoki izapidetu ahalko dira ordezkari baten bidez. Horretarako, ordezkari hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkariek>

Zortzigarrena.– Eskabideak eta dokumentazioa aurkeztea.

1.– Eskabide-orria (I. eranskina), erantzukizunpeko adierazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dagoen inprimakian beteko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1065405>

2.– Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, honako inguruabar hauek egiaztatuko dira:

2.1.– Zein egoeratan dagoen (eskatuta, emanda edo izapidetzen) administrazio publiko honi edo beste batzuei edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuei prestakuntza-plan bererako edo haren edozein alderditarako eskatutako beste edozein laguntza edo dirulaguntza.

2.2.– Zein egoeratan dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzulketa- edo zehapen-prozedurak, artean izapidetzen ari direnak.

2.3.– Ez dagoela zehatuta ez arlo administratiboan, ez penalean sexu-arrazoiengatiko bereizkeria egiteagatik, eta ez dagoela debeku horrekin zehatuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.4.– Ez duela ez arlo penaleko, ez administratiboko zehapenagatik dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galdu, eta ez duela horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik.

2.5.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea, azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 3.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.6.– Ez dagoela Dirulaguntzen Lege Orokorren 13.2 artikuluan xedatutako ezin inguruabarretan.

2.7.– Konpromisoa hartzen duela uztailaren 19ko 232/2021 Dekretuan eta Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. eta 46. artikuluetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzeko.

2.8.– Konpromisoa hartzen duela abenduaren 17ko 698/191 Dekretuaren 2.3 artikuluan ezarritako moduren batean berme errealak eratzeko.

2.9.– Horretara behartuta dagoenean, erakunde eskatzaileak indarrean duela berdintasun-plan bat, Estatuko araudiaren arabera.

2.10.– 50 langiletik gorako enpresen kasuan, erakunde eskatzaileak neurriak ezarri dituela sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritakoaren arabera.

3.– Eskabidearekin batera, prestakuntza-plana deskribatzen duen inprimaki normalizatua aurkeztuko da, Dekretuaren 8.1.b) artikuluan eskatutako baldintzetan, bai eta gastu-aurrekontua ere, agindu honen II. eranskinean argitaratutako formatuarekin. Eredu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa daude eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1065405>.

4.– Dirulaguntza emateko eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du organo kudeatzaileari baimena ematea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak behar beste aldiz betetzen dituela egiaztatzeko, eta ez da beharrezkoa izango horien baimenik. Hala ere, erakunde eskatzaileak aurka egin ahal izango du; kasu horretan, ziurtagiri horiek aurkeztu beharko ditu, erregelamenduz aurreikusitako moduan.

5.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egon behar du.

Erakundea erregistratuta ez badago, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, elektronikoki izapidetu beharko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://euskadi.eus/hirugarrenak>).

Bederatzigarrena.– Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta honako izen hau duen tratamendu-jardueran sartuko dira: prestakuntza-planetarako dirulaguntzak.

- Arduraduna: Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza, Lan eta Enplegu Saila.

- Helburua: enpresa-elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako dirulaguntzak izapidetzea eta kudeatzea, prestakuntza-planak gara ditzaten giza baliabideen kualifikazioa hobetzeko beren jardura-esparruetako gaitan.

- Legitimazioa:

- \* Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean burututako eginkizun bat betetzeko.

- \* 19/1977 Legea, apirilaren 1ekoa, Sindikatueta Elkartzeko Eskubidea Arautzeari buruzkoa.

- \* 11/1985 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, Sindikatu Askatasunari buruzkoa.

- Hartzaileak:

- Ez dago aurreikusita daturik jakinaraztea.

- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk baliatzeko ere.

- Informazio gehigarria: gure webgune honetan kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/122900-cap2-eu.shtml>

- Araudia:

- \* Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)).

- \* 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestu eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>)

Hamargarrena.– Dirulaguntzen kudeaketa eta ebazpena.

Azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 10.1 eta 14.1 artikuluei dagokienez, Lan eta Enplegu Sail-eko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza da eskabideak kudeatu eta izapidetzeaz arduratzen den organoa, eta Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariak du ebazteko eskumena.

Hamaikagarrena.– Dirulaguntza ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

Dirulaguntzak ondoren zehazten den moduan ordainduko dira:

a) Lehenengo zatia, hau da, guztirako dirulaguntzaren % 70, dirulaguntza ematea erabakitzen denean.

b) Bigarren zatia, gainerako % 30a, diruz lagundutako prestakuntza-plana amaitu ondoren ordainduko da, hura amaitu eta bi hilabeteko epean azken memoria bat aurkeztu ondoren. Memoria horretan, azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 15.1 artikuluan aipatutako dokumentazioa jasoko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Araudi aplikagarria.

Agindu honetan adierazitako dirulaguntzetarako, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori); Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarriko arauak (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatutako lege orokorra).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Jaur-laritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta, horretarako, bi hilabete izango dira, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 5a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu Sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.



## I. ERANSKINA

ENPRESA- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEENTZAKO DIRULAGUNTZAK, PRESTAKUNTZA-PLANAK  
GARA DITZATEN BEREN JARDUERA-ESPARRUEI DAGOZKIEN GAJETAN ERAKUNDE HORIEKIN  
LOTUTAKO PERTSONEN KUALIFIKAZIOA HOBETZEKO – 2022RAKO DEIALDIA.

## ESKABIDEA:

Instrukzio-organo honi zuzendua:

LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZA.

## IDENTIFIKAZIO-DATUAK.

Eskatzailea.

Espedientearen pertsona/erakunde interesduna.

Identifikazio-agiria: IFK.

Zenbakia: \_\_\_\_\_

Erakundearen izena: \_\_\_\_\_

## JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOETARAKO KANALA.

Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:

\_\_\_\_\_.

Espediente hau izapidetzen den bitartean, administrazioak bidaliko dituen jakinarazpenen hartzailea honako hau izango da:

\_\_\_\_\_

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala:

Elektronikoa: Nire karpeta ataleko jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, identifikazio-bitarteko elektronikoa bat behar da.

*Kanal elektronikoa buruzko oharra:* Jakinarazpen elektronikora sartzeko ez bazara, jakinarazitzat joko da Nire karpeta eskuragarri jartzen denetik 10 egun natural igarotakoan. Epe hori igarotakoan, jakinarazpenari uko egiten diozula ulertuko da, eta hala jasoko da espedientearen. Izapidea egintzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak.

Ohar bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera Nire karpeta jakinarazpen edo komunikazio bat daukazunean.

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Berretsi helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Telefono mugikorra: \_\_\_\_\_

Komunikazio-hizkuntza.

Posta elektronikoen eta abisu-mezuen bidez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazten duzun hizkuntzan egongo dira.

Euskara  Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena.

Nahi dut nire jakinarazpenetarako eta abisuetarako datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sailekin eta erakundeekin ditudan harremanetan erabil daitezen.

Nahi dut nire jakinarazpenetarako eta abisuetarako datuak, soil-soilik, espediente hau kudeatzeko erabil daitezen.

#### DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA.

Datuen babesari buruzko oinarriko informazioa:

Eskabidean ageri diren izaera personaleko datuak tratatu egingo dira, eta «Sindikatuaren ordezkarizagatik dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritza, Lan eta Enplegu Saila.

Helburua: enpresa-elkarteentzako eta erakunde sindikalentzako dirulaguntzak izapidetzea eta kudeatzea, prestakuntza-planak gara ditzaten giza baliabideen kualifikazioa hobetzeko beren jardueraren esparruetako gaitan.

Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean burututako eginkizun bat betetzeko.

19/1977 Legea, apirilaren 1ekoa, Sindikatuaren Elkartzeko Eskubidea Arautzeari buruzkoa.

11/1985 Lege Organikoa, abuztuaren 2koa, Sindikatu Askatasunari buruzkoa.

Hartzaileak: Ez dago aurreikusita daturik jakinaraztea.

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk baliatzeko ere.

Informazio gehigarria: Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza gure webgunean duzu kontsultagai, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/122900-cap2-eu.shtml>.

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

(<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EU/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=EU>)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?lang=eu&id=BOE-A-2018-16673>).

## DATU OROKORRAK

Zein lurralde historikotan / autonomia-erkidegotan / probintzian dauden jasota eskatzailearen datu fiskalak.

Lurralde Historikoa / Autonomia-erkidegoa / Probintzia:

## ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Honako hau adierazten da:

Bateragarritasun-adierazpenak.

Ez da xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.

Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntza eskatu dio, eta hark eman egin dio (horri buruzko xehetasunak «Beste dirulaguntza batzuk» izeneko erlaitzean zehaztu behar ditu, edo aparteko dokumentu bat erantsi).

Administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza edo dirulaguntza eskatu dio, eta ebazpenaren zain dago (horri buruzko xehetasunak «Beste dirulaguntza batzuk» izeneko erlaitzean zehaztu behar ditu, edo aparteko dokumentu bat erantsi).

Itzulketaren berariazko adierazpena.

EAEko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitako itzultzeko eta zehatzeko prozedura batean sartuta dago.

Egunean du dirulaguntzak itzultzeagatiko betebeharren ordainketa, azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuaren 3.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Zehapen-adierazpenak.

Ez dago laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuta, delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, influentzia-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

Ez zaio zehapenik ezarri dirulaguntzak jasotzea galarazten dion ebazpen irmo baten bidez, betiere bat etorri lege honekin edo halakorik ezartzen duten beste batzuekin.

Ez zaio dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ezarri sexu-arrazoiengatiko bereizkeria egiteagatik, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legearen arabeko debekurik ere.

Berariazko adierazpena.

Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude sartuta honako lege hauek jasotako kasuren batean: Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duen martxoaren 30eko 3/2015 Legea; Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legea (LBK, 1985, 14); edo Hauteskunde Erregimen Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan (LBK, 1985, 1463 eta LBK, 1986, 192) araututako kargu hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko arauak ezarritako baldintzetan.

Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen ditu.

Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan dokumentu guztiak ere; hala, dagokidan erantzukizuna neure gain hartzen dut (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Horretara behartuta dagoenez, indarrean du berdintasun-plan bat, Estatuko araudiaren arabera.

50 langile baino gehiago dituen enpresa izanik, neurriak ezarri ditu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitu eta eragozteko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarritako dituen legeen arabera.

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Ofizioz egiaztatzea:

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, prozedura hau bideratzen duen organoak ofizioz egiaztatuko ditu, dagokion administrazioan, honako datu hauek:

Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatea (Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia - GSDN).

Zerga-betebeharrak egunean izatea (Arabako Foru Aldundia - AFA).

Zerga-betebeharrak egunean izatea (Bizkaiko Foru Aldundia - BFA).

Zerga-betebeharrak egunean izatea (Gipuzkoako Foru Aldundia - GFA).

Salbu eta interesdunak aurka egiten badu.

Honako honek izenpetu du elektronikoki:

2022ko urriaren 20a, osteguna

## II. ERANSKINA.

ENPRESA- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUEREN  
PROGRAMA.

2022ko dirulaguntza-eskabidea.

1. dokumentua.

PLANA ANTOLATZEKO ARRAZOIAK.

Arrazoitu zergatik den beharrezkoa proposatutako prestakuntza-plana egitea, eta, horretarako, erantsi plan estrategikoa, zerbitzuen kalitatea hobetzeko proiektua eta proposatutako prestakuntza-ekintzak eragiten dituzten prestakuntza-premien azterketaren emaitzak.

Azalpena orri honen atzealdean jarraitu, beharrezkoa bada.

2022ko urriaren 20a, osteguna

## ENPRESA- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA.

2022ko dirulaguntza-eskabidea.

2. dokumentua.  
PRESTAKUNTZA-EKINTZEN PLANAREN ESHEMA BIDEZKO TAULA.

ERAKUNDE ESKATZAILEA.
-----------------------

	Ekintza-kopurua	Eskaintako plaza-kopurua	Ordu-kopurua	Aurrekontua		
				Gastuak	Diru-sarrerak	Kostua
I. Taldeko ekintzak						
II. Taldeko ekintzak						
III. Taldeko ekintzak						
IV. Taldeko ekintzak						
Guztira						

## PRESTAKUNTZA-EKINTZEN PLANAREN ESKEMA BIDEZKO TAULA.

ERAKUNDE ESKATZAILEA.

## EKINTZA BAKOITZAREN AURREKONTUA ETA EZAUGARRIAK.

## I. TALDEKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK (aurrez aurreko ekintzak).

Hurrenkera -zk.	Ekintzaren izena	Hasiera- eguna	Amaiera- eguna	Non egiten den: lurraide historikoa			Eskaintako plaza-kopurua	Ordu- kopurua	Aurrekontua			
				ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA			Gastuak	Diru- sarrerak	Ekintzaren kostua	
Guztira												

Oharra: I. taldean ekintza mistoak sartu behar dira (aurrez aurreko modalitatearen eta teleprestakuntzaren konbinazioa), aurrez aurreko zatia iraupen osoaren % 20 baino handiagoa denean.

## PRESTAKUNTZA-EKINTZEN PLANAREN ESKEMA BIDEZKO TAULA.

2022ko urriaren 20a, osteguna

ERAKUNDE ESKATZAILEA.

EKINTZA BAKOITZAREN AURREKONTUA ETA EZAUGARRIAK.

II. TALDEKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK (ekintza ez-presentzialak).

Hurrenkera-zk.	Ekintzaren izena	Hasiera-eguna	Amaiera-eguna	Non egiten den: lurralde historikoa			Eskaintak o plaza-kopurua	Ordu-kopurua	Plataforma eguneratzea (bail/ez)	Aurrekontua		
				ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA				Gastuak	Diru-sarrerak	Ekintzaren kostua
Guztira												





2022ko urriaren 20a, osteguna

PRESTAKUNTZA-EKINTZEN PLANAREN ESKEMA BIDEZKO TAULA.

ERAKUNDE ESKATZAILEA.

EKINTZA BAKOITZAREN AURREKONTUA ETA EZAUGARRIAK.

IV. TALDEKO PRESTAKUNTZA-EKINTZAK (hirugarrenek antolatutako prestakuntza-jardueretara joatea).

Hurrenkera- zk.	Ekintzaren izena eta hura ematen duen erakundea	Hasiera-eguna	Amalera-eguna	Eskaintako plaza-kopurua	Ordu-kopurua	Aurrekontua		
						Gastuak	Diru-sarrerak	Ekintzaren kostua
Guztira								

ENPRESA- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEEK SUSTATUTAKO PRESTAKUNTZA-JARDUEREN PROGRAMA.

2022ko dirulaguntza-eskabidea.

3. dokumentua.

PRESTAKUNTZA-EKINTZA BAKOITZAREN AZALPENA ETA EZAUGARRIAK.

Koaderno bat bete behar da prestakuntza-ekintza bakoitzeko.

Ekintzaren hurrenkera zk.

Prestakuntza-ekintzaren izenburua.

Prestakuntza-ekintza zein hizkuntzatan egiten den.

A. PRESTAKUNTZA-EKINTZA HAU ANTOLATZEKO ARRAZIOIAK.

Jarduera lehendik egina den adierazi beharko da, eta, horrela bada, lortutako emaitzak.

.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....  
.....

B. EKINTZAREN HARTZAILEAK.

B.1 Prestakuntza-ekintzan parte hartuko dutenen ezaugarriak azaldu behar dira: Kualifikazio-maila, lanbide-kategoria, arlo funtzionala, sexua, adina, etab.

.....  
.....  
.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## B.2 Baldintza espezifikoak .

Adierazi bertaratuek ea baldintza espezifikoak bete behar dituzten edo ez, zeinak egokitzat jotzen baitira ekintzan probetxu bikainak ateratzeko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## B.3 Zabalkunde-prozesua. Adierazi zein hedabide erabiliko diren.

1. Prentsa.
2. Irratia.
3. Mailinga.
4. Liburuxkak eta kartelak.
5. Beste batzuk (zehaztu):

.....

.....

.....

## B.4 Hautaketa-prozesua.

Zehaztu eskatzaileen artean hautaketa egiteko kontuan hartuko diren irizpideak eta aldagaiak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

C. PRESTAKUNTZA-EKINTZAREN HELBURUAK.

C.1 Helburu orokorrak.

Zehaztu zein helburu orokor lortu nahi diren ekintzaren bitartez. Adierazi bertaratutakoen lorpenaren arabera.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

C.2. Xedea.

Zein premia edo gabezia bete nahi du prestakuntza-ekintza honek?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

D. HELBURU OROKORRAK.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

E. HELBURU ESPEZIFIKOAK.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

F. EDUKIAK.

Prestakuntza-ekintzaren edukiak biltzen dituzten arloak edo eduki-multzoak eranskin gisa gehituko dira, beste orri batean.

G. METODOLOGIA.

Azaldu zein era eta metodo didaktiko ezarri diren aurreikusitako helburuak eta edukiak garatzeko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

H. EBALUAZIOA.

Adierazi zein ebaluazio-mota aurreikusi den bertaratutakoen lorpenak baloratzeko.

J.1 Zehaztu ebaluatzeko aldagaiak eta irizpideak :

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

J.2 Zehaztu zein ebaluazio-metodologia erabiliko den:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

J.3. Adierazi zein unetan egingo den ebaluazioa:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

J.4 Ebaluazio-prozesuaren arduraduna :

.....

.....

.....

.....

.....

I.- APLIKAZIO INFORMATIKOAK.

Erabilitako plataforma informatikoak eguneratu egin dira aurreko ekitalditik:

- BAI.
- EZ.